



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Osakidetza

GASTEIZKO
ERIZAINZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA
ESCUELA UNIVERSITARIA DE ENFERMERÍA
DE VITORIA-GASTEIZ

ARIKETA FISIKOA IKTUSAREN SINTOMA MOTORE ETA PSIKOLOGIKOEN ARINTZEAN: LITERATURAREN ERREBISIO KRITIKOA



Gradu Amaierako Lana

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola

2020-2021 ikasturtea

EGILEA: Laura Sastre Ochoa de Eguileor

HITZ KOPURUA: 6500 hitz

Vitoria-Gasteizen, 2021eko maiatzaren 3an

ESKER ONAK

Eskerrik asko

Lan honen zuzendariari, lana aurrera eramateko emandako laguntza handiagatik.

Lau urte hauek nirekin partekatu dituzten lagunei.

Nire familiari, beti nire alboan egoteagatik.

AURKIBIDEA

1.-SARRERA.....	4
2.-ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	5
3.-HELBURUA.....	9
4.-METODOLOGIA.....	10
4.1. DISEINUA.....	10
4.3. ARTIKULUEN AUKERAKETA.....	11
4.4. DATA ATERATZEA.....	12
4.5. DATA ANALISIA.....	12
5.-EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	13
5.1. IKERKETEN EZAUGARRI OROKORRAK.....	13
5.2. EMAITZA ESANGURATSUAK.....	15
5.2.1. Sintoma motoreak.....	15
5.2.1.1. Sasoia.....	15
5.2.1.2. Mugikortasuna.....	17
5.2.1.3. Oreka.....	20
5.2.2. Sintoma psikologikoak.....	21
5.2.2.1. Depresioa.....	22
5.2.2.2. Antzietatea.....	22
6.-LIMITAZIOAK.....	23
7.-ONDORIOAK.....	24
8.-BIBLIOGRAFIA.....	26
9.-ERANSKINAK.....	29
1. eranskina: Kontzeptu-taula.....	29
2. eranskina: Bilaketa-taula.....	31
3. eranskina: Fluxu-diagrama.....	46
4. eranskina: Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia.....	47
5. eranskina: Laburpen-taula.....	53
6. eranskina: Zuhaitz-kategoria.....	60

1.-SARRERA

ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA: Iktusa, mundu mailan heriotza eta desgaitasun kausa nagusienetariko bat suposatzen duen gaixotasun kardiobaskularra da. Gaitz hau bizipen estresagarria da paziente, senide zein zaintzaileentzat. Izan ere, asaldura sensorialak, motoreak, kognitiboak, psikotikoak eta komunikazio eta portaera asaldurak eragin ditzake. Gainera, intzidentzia, prebalentzia, kostu, heriotza eta desgaitasun-tasa altuek, iktusa osasun eta gizarte-arazo bilakatzen dute.

HELBURUA: Ariketa fisikoaren eraginkortasuna aztertu iktusa pairatu duten pertsonen sintoma motore eta psikologikoen arintzean.

METODOLOGIA: Lan hau literaturaren errebisio kritiko bat da. Artikuluen bilaketa prozesuan MedlineOVID, APAPsycInfo, Cuiden, Cinahl eta Embase datu-baseak erabili ziren. Eskuzko bilaketak, alde batetik, Ebidentzian Oinarritutako Erizaintzara zuzendutako erankundeetan egin ziren, The Cochrane Library, NICE eta RNAO-n. Bestalde, Stroke AHA Journal, Revista Científica de la Sociedad Española de Enfermería Neurológica eta Journal of Neuroscience Nursing aldizkariak kontsultatu ziren.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA: Sasoiari zegokionez, fase akutuan erresistentzia ariketek oxigeno kontsumo maximoa hobetzeko joera erakutsi zuten. Fase kronikoan, erresistentzia ariketa edo erresistentzia beste ariketekin konbinatutako programak hobekuntza adierazgarriak zekartzaten. Ez zen informaziorik topatu fase akutua eta ariketa erlazionatzen zituen indarrarekin; fase kronikoan, ordea, indarra lantzeko ariketak eraginkorrak ziruditen. Fase akutu zein kronikoan zeuden pertsonen ibilera erresistentzia eta abiadura aztertzen zuten ikerketa guztiek hobekuntza esanguratsua adierazi zuten. Orekari zegokionez, fase akutuan enbor oreka lantzeko ariketek eraginkorrak ziruditen. Fase kronikoan, ariketa misto eta erresistentziakoek hobekuntzak zekartzaten. Jarduera fisikoak iktus osteko egoera emozionalean duen eraginari zegokionez, ez zen emaitza erabakigarriarik lortu, ikerketa kopuru eskasa eta kalitate metodologiko baxuagatik.

ONDORIOAK: Iktus osteko sintoma motore zein psikologikoak pairatzen dituzten pertsonengan, oro har, ariketa fisikoak hobekuntzak dakartzala esan genezake. Halere, kontuan hartu behar da klinikaren arabera gomendatutako ariketa mota aldagarria dela. Gainera, ezinbestekoa da pertsonaren testuingurua aztertzea eta arreta indibidualizatua eskaintzea. Informazio hau beharrezkoa da erizaintzat iktusa pairatutako pazienteen arreta integrala bermatzeko, hezkuntzaren bidez bizi-estilo osasuntsuak sustatuz, pertsonen osasun-emaitzak eta bizi-kalitatea hobetuz eta erreurrentziak ekidituz. Azterketan zehar zenbait isuri antzeman dira, laginen tamaina txikia, heterogeneotasuna eta diseinu multizentrikoen falta gehienbat.

HITZ-GAKOAK: *iktusa, ariketa fisikoa, sintoma motoreak, sintoma psikologikoak, bizi-kalitatea.*

2.-ESPARRU KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Iktusa, mundu mailan heriotza eta desgaitasun kausa nagusienetariko bat suposatzen duen gaixotasun kardiobaskular bat da. Istripu zerebrobaskular (IZB) terminoarekin ere ezaguna den gaitz hau, garuneko odol fluxuaren murrizketa edo buxaduragatik ematen da⁽¹⁻³⁾. Ondorioz, odola ez da garunera behar den kopuruan heltzen eta horrek garuneko zelulen hipoperfusioa eragiten du, hauek beraien funtzioa betetzeari utzi eta garun-ehun horren alterazio funtzionalaren sintomak hasten direlarik^(3,4). Iktusen artean, iskemikoak (kasuen %85) eta hemorragikoak (kasuen %15) eman daitezke, azkenengo hauen barne garun barneko hemorragia eta hemorragia subarakoidea bereizten direlarik^(1,4).

ENSE2017 ikerketak estimatutakoaren arabera, 2017.urtean prebalentzia %1,7koa izan zen estatu mailan⁽⁵⁾. Euskal Herrian, %2,1ekoa izan zen 15 urtetik gorako pertsonengan⁽⁶⁾. Intzidentziari dagokionez, estatu mailan, 2017an 100.000 biztanleko 187,4k pairatu zuten iktus bat⁽⁵⁾. EAEn, berriz, IBERICTUS ikerketak 2018ko urtarrilaren 1era arte izandako datuekin urtero 3379 kasu berri daudela jasotzen du⁽⁶⁾.

INEren 2020ko lehenengo bost hilabetetako hilkortasun datuen arabera, zirkulazio-sistemaren asaldurak lehenengo heriotza kausa izan ziren⁽⁷⁾. Estatu mailan, IZB lehenengo heriotza kausa da emakumeen artean; eta bigarrena gizonengan. Europan 650.000 heriotza eragiten ditu urtero⁽³⁾.

Halaber, helduetan lehenengo desgaitasun kausa da, eta dementzia eragiten duen bigarrena, Alzheimerren atzetik⁽⁵⁾. Gaur egun, IZB pairatzen duten pertsonen %30ak desgaitasun arazoren bat aurkezten du paralisi, oreka asaldura, indar galera, hizkera asaldura edota asaldura kognitiboen bidez adierazten dena. Soilik iktus gaixoen %40 da era autonomoan bizitzeko gai⁽³⁾.

Gainera, iktusen kosteak, zenbait herrialde industrializatuetan, osasun gastuaren %2-4 inguru dira. Iktus bakoitzak batezbesteko 4000 euroko gastua suposatzen du lehenengo 3 hilabetetan, gaixo eta familiaren laneko bajak kontuan hartu gabe. Hori jakinda eta intzidentzia, prebalentzia, desgaitasun eta heriotza-tasa altuak ikusita, esan daiteke gaur egun iktusek gizarte eta osasun-arazo handia suposatzen dutela, estrategia ezberdinak beharrezkoak izanik kontrol, prebentzio eta baita tratamendurako ere⁽³⁾.

Arrisku faktoreei dagokionez, alde batetik, iktusa maizago ematen da 55 urtetik gorako pertsonengan, arriskua adinarekin batera proportzionalki haziz⁽³⁾. Halere, gero eta gehiago dira gaitza pairatzen duten gazteak⁽⁸⁾. Bestalde, IZB maizago ematen da gizonengan^(4,9).

Horietaz gain, badaude iktusaren agerpenarekin erlazioatutako beste hainbat arrisku faktore, hurrengo taulak adierazten duen bezala **(1.taula)**^(3,4).

<p>Arrisku faktore aldaezinak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Adina - Sexua - Iktus aurrekariak familian - Iktusa edo garuneko istripu iskemiko iragankorra jasan izana
<p>Arrisku faktore aldagarriak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Hipertentsioa - Bihotz arritmiak (fibrilazio aurikularra) - Diabetes Mellitusa - Dislipemia - Obesitatea - Sedentarismoa - Tabakismoa - Alkohol kontsumoa - Droga kontsumoa - Aho bidezko antisorgailuak

1.taula. Iktusaren arrisku faktore aldaezinak eta aldagarriak. (Sastre-k egina. Federación Española del Ictus 2017 eta Altuna M et al. 2018-n oinarrituta).

Iktusa bizipen estresagarria da paziente, senide eta baita zaintzaileentzat ere. Izan ere, asaldura sentsozialak, motoreak, kognitiboak, psikotikoak eta komunikazio eta portaera asaldurak eragin ditzake, betiere iktus mota eta kokapenaren arabera^(4,10).

Sentsibilitate asaldurak inurridura, sentsazio desatsegin eta ukimen, tenperatura eta minarekiko sentsibilitate faltaren bidez adierazten dira^(2,10).

Asaldura motoreen barruan, indar galera eta ahultasuna asaldura ohikoenetariko bat dira (hemiplegia, gorputzaren hemisferio bateko erabateko paralisia ematen bada; hemiparesia, ahultasuna agertzean, posiblea izanik mugitzea baina indar gutxiagorekin)^(2,4,11). Koordinazio falta edo mugimenduaren kontrol galera ere eman daitezke. Oreka asalduren ondorioz, iktusa pairatu duten pertsonak zailtasunak izan ditzakete gorputz jarrerari eusteko, horrek erortzeko joera handiagoa dakarrelarik^(2,10).

Saso edo gaitasun aerobikoaren murrizketa ere eman ohi da; eta horrekin batera espastizitatea, zurruntasuna, ahultasuna, mina eta zenbait mugimendu burutzeko zailtasunak^(2,10). Iktusa pairatu ostean ematen den ondorio nagusietako bat beheko gorputz adarretako hemiparesia da. Oin ekinoa da horren adierazpenik ohikoena. Asaldura honek garrantzi handia dauka, ibilera ezinbesteko funtzioa baita gizarteratzea erraztu eta eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko. IZB kasuen %60-80k ibiltzeko arazoak dauzka⁽¹²⁾. Apraxia, hau da, mugimenduaren planifikazio faltagatik ematen den funtzio motorearen asaldura, pertsona hauek pairatzen duten beste sintometako bat da⁽¹⁰⁾. Azkenik, sorbalda mingarri hemiplegikoa iktusen ondorioz askotan ematen den sintoma motorea da, sorbaldako giltzadura edo erasan neurologikoarekin erlazionatuta dagoena. Honek jarduera funtzional eta errehabilitazio-prozesuko partaidetza murrizten du⁽¹³⁾.

Azaldu bezala, iktusaren bigarren mailako alterazio motoreak askotarikoak dira, eta eragin handia izan dezakete iktusa izan dutenen bizi-kalitatean. Halere, badira IZBrekin lotutako beste hainbat konplikazio, taulan ikus daitekeen bezala **(2.taula)**^(4,10,11,14):

Asaldura kognitiboak	Afektibitate eta portaera-nahasmenduak	Alterazio psikotikoak	Komunikazio asaldurak	Bestelako asaldurak
<ul style="list-style-type: none"> - Memoria galera - Arreta eta orientazioaren murriztea - Lanaren antolakuntzarako zailtasunak - Erabakiak hartzeko zailtasunak 	<ul style="list-style-type: none"> - Antsietatea - Depresioa - Frustrazioa - Isolamendua - Suminkortasuna - Tratamendu edo egoerarekiko axolagabetasuna/ukatzea - Lo / jangura nahasmenduak 	<ul style="list-style-type: none"> - Haluzinazioak 	<ul style="list-style-type: none"> - Disartria - Afasia sentsoriala edo motorea - Disfasia 	<ul style="list-style-type: none"> - Ikusmen asaldurak (hemiapnosia gehienbat) - Gernu / eginkariei inkontinentzia - Solido edo likidoekiko disfagia

2.taula. IZB-ren ondoriozko asaldura kognitibo, afektibitate eta portaera-nahasmenduak, alterazio psikotikoak, komunikazio asaldurak eta bestelako asaldurak (Sastre-k egina. Altuna M et al. 2018, Acosta P et al. 2015. Hinkle JL et al. 2019 eta Mimentza N et al. 2017-n oinarrituta).

Tratamenduari dagokionez, aipatu beharra dago arrisku faktoreen kontrolarekin batera, iktusen kontrolerako oinarritzko arloa berehalako arreta espezializatua dela. Hura jaso ezean, pazienteek kalte neurologikoa jasotzeko arriskua areagotzen da^(3,11,15).

Arreta espezializatu hori iktus unitateetan ematen da. Fase akutu horretan, gorputzeko sistema guztien etengabeko balorazioa eta monitorizazioa ezinbestekoak dira. Tratamendu medikuari dagokionez, aldagarria da iktus mota eta beste hainbat irizpideren arabera. IZB jasan duen pazienteak konplikazio anitz pairatzeko arriskuan dago, aurretik ikusi den moduan. Erizainen arretak garrantzi handia dauka tratamenduan zehar eta inpaktu handia pazienteen berreskuratzean. Izan ere, monitorizazioaz gain, pazienteen etengabeko balorazioa burutzeko eta konplikazioak prebenitu, identifikatu eta tratatzeko ardura daukate. Gainera, pazientearen berreskuratzea bultzatzen dute entzute aktibo eta hezkuntzaren bitartez^(3,11,15).

Behin pazienteak egonkortuta eta tratamendu eta ospitaleko jarraipenik behar ez duenean, alta jasotzen du, fase akutua amaituz. Orduan, 2.mailako prebentziorako tratamendua preskribatu eta maneia errehabilitazioaren hasiera goiztiarrean enfokatzen da, tratamendu kronikoari hasiera emanez^(3,11,15).

Iktusa jasan duten pertsonen, funtzionaltasuna berreskuratzeke eta albo-ondorioak ahalik eta neurri handienera ekiditeko pertsonalizatutako errehabilitazio prozesua behar dute^(3,4,11,15). Iktusaren errehabilitazioak IZB pairatu duten pazienteen defizit edo desgaitasunak murriztea edo pazienteak horietara moldatzea (funtzionaltasuna berreskuratzea) du helburu, birgizarteratze-prozesua erraztearekin batera. Prozesu aktiboa da, parte-hartzea eta ikasketa gaitasuna eskatzen dituen paziente, senide zein zaintzaileen aldetik^(2,3). Iktus osteko ohiko errehabilitazio programak ariketa edo terapia fisiko, okupazional eta logopedia arloko zenbait tekniken aplikazioan oinarritzen dira funtsean^(2,3).

Munduko Osasun Erakundearen arabera ariketa fisikoa jarduera fisiko planifikatu, egituratu eta errepikakor bat da, osasuna edota egoera fisikoaren osagai bat edo gehiago mantentzeko edo hobetzeko erlazionatutako helburuarekin eta nahita eramaten dena aurrera^(16,17). Lau ariketa

fisiko nagusi bereizten dira: erresistentzia aerobikoa, oreka, indarra eta malgutasuna lantzekoak⁽¹⁸⁾.

Badaude ariketa fisikoaren aldeko gomendioak populazio osasuntsu, gaixo, gazte zein adindu eta beste patologiak dituzten pazienteentzako. Horien barne iktusa pairatzen duten gaixoak sartzen dira. Izan ere, ariketa fisikoa iktus ostean zabalki sustatutako jarduera da⁽¹⁶⁾.

Are gehiago, badaude ariketa fisikoaren eraginkortasuna metodo terapeutiko bezala frogatzen duten hainbat ikerketa. Aramendi JF et al.-en⁽¹⁹⁾ 2015eko errebisio sistematikoak adierazten duen moduan, ariketa fisiko aerobiko zein indarra lantzekoak, eraginkorrak eta seguruak dira hilkortasun eta erikortasunaren murriztean, sintoma eta zeinu batzuen arintzean eta baita funtzio fisikoaren areagotzean ere, gaixotasun kardiobaskularrak pairatu dituzten pazienteengan, iktusa barne. Billinger SA et al.-en⁽²⁰⁾ 2014ko gidak intentsitate moderatu zein altuko ariketa fisikoaren sustapena defendatzen du iktusa pairatu duten pertsonen bizi-kalitatea eta funtzionaltasuna hobetu eta errekurrentziak ekiditeko. 2014an, Wang C et al.-en⁽²¹⁾ errebisio sistematiko eta metaanalisiak eta Ushio M et al.-en⁽²²⁾ analisi erretrospektiboak ariketa fisikoaren eraginkortasuna frogatu zuten IZB errekurrentzia ekiditeko metodo bezala.

Erizainak iktusa pairatu duten pertsonen errehabilitazio prozesua osatzen duen talde multidiziplinarraren funtsezko profesionalak dira^(23,24). Erizainek, talde horren barruan, zainketen jarraipenaren bitartez erizaintza errehabilitazio espezifikoa eskaintzen diete pazienteei, hauek eguneroko bizitzako jardueretan eta funtzionaltasunean entrenatuz. Paziente hauek entrenamendu handiagoa behar dutenez, erizainak funtsezko rola dauka beraienezko ariketa fisiko eta jarduera funtzionalak lantzeko aukera berriak sortzen⁽²⁴⁾.

Hezkuntza IZB jasan duten paziente eta senideen zainketen ezinbesteko aspektua da. Iktusaren konplexutasun eta bizi-aldaketa handiak, paziente, senide eta zainzaileek hezkuntza behar handia izatea dakar. Informazio falta horrek gaizkiulertu, antsietate eta beldurrak dakartza⁽²⁴⁾. Hezkuntza prozesu hau ere, erizainaren rol profesionalak bildutako arlo nagusienetarikoa da⁽²³⁾.

Aipatutakoa aintzat hartuz, agerian geratzen da iktusa gaitz konplexua dela, pertsona zein familiaren arlo bio-psiko sozial eta espiritualean eragin handia duena. Erizainaren rola aztertuz, argi dago erizaintzaren kompetentziaren barruan sartzen dela ariketa fisiko eta iktusaren arteko erlazioa ezagutzea, pazienteen eguneroko bizitzako zainketetan aplikatu ahal izateko⁽²⁴⁾. Are gehiago, errebisio kritiko honen informazioa ezinbestekoa da erizaintzat iktusa pairatu duten pazienteen arreta integrala bermatzeko, hezkuntzaren bidez bizi-estilo osasuntsuak sustatuz, sintoma motore eta psikologikoen arintzearen bitartez pertsonen osasun emaitzak eta bizi-kalitatea hobetuz, eta bide batez, errekurrentziak ekidituz.

Errebisio kritiko honek, ariketa fisikoak iktusa pairatu duten pertsonen sintoma motore eta psikologikoen arintzean duen eraginkortasuna aztertuko du.

3.-HELBURUA

Ariketa fisikoaren eraginkortasuna aztertzea iktusa pairatu duten pertsonen sintoma motore (sasoia, mugikortasuna eta oreka) eta psikologikoen (antsietatea eta depresioa) arintzean.

4.-METODOLOGIA

4.1. DISEINUA

Literaturaren errebisio kritiko hau ahalmen-berrikuspenetarako gidaren⁽²⁵⁾ eta Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses (PRISMA)⁽²⁶⁾ txostenak aurkezteko jarraibideen arabera garatu zen.

4.2. BILAKETA ESTRATEGIA

Bilaketa estrategia hainbat informazio-iturri ezberdin baliatuz eraman zen aurrera. Alde batetik, erabilitako datu-baseak MedlineOVID, APAPsycInfo, Cuiden, Cinahl eta Embase izan ziren.

Bestalde, Ebidentzian Oinarritutako Erizaintzara zuzendutako erankundeetan ere bilaketak egin ziren, The Cochrane Library, NICE eta RNAO-n, hain zuzen ere. Azkenik, gaiarekin erlazionatutako aldizkariak kontsultatu ziren (Stroke AHA Journal, Revista Científica de la Sociedad Española de Enfermería Neurológica eta Journal of Neuroscience Nursing), informazioa zabaltzeko asmoz. Errebisio sistematikoen bibliografia ere berrikusi zen bertatik erabilgarriak izan zitezkeen artikulak ateratzeko asmoz.

Datu-baseetatik baliatu ahal izateko, lehenik eta behin, helburua buruan izanik, PIKO eraiki zen: (P) iktus iskemiko zein hemorragikoa pairatu duten pertsonak (I) ariketa fisikoa (indarra, erresistentzia aerobikoa, oreka, malgutasun ariketak) (K) ariketa fisikorik ez / ohiko errehabilitazio programak (O) sintoma motoreak, psikologikoak eta bizi-kalitatea.

Hortik abiatuz, hitz-gakoak atera ziren: iktusa, ariketa fisikoa, sintoma motoreak, sintoma psikologikoak eta bizi-kalitatea. Hitz-gakoak zehaztu ostean eta *DeCS* aplikazioa erabilia, hitz-gako bakoitzaren sinonimoak bilatu ziren ingelesez eta baita gaztelaniaz ere. **(1.eranskina. Kontzeptu-taula)** Behin hori eginda, bilaketa ekuazioak sortzeari ekin zitzaion AND eta OR operadore booleanoen bidez. Era horretan, hainbat ekuazio formulatu ziren lengoia kontrolatu eta naturalaz baliatuz, bilaketa eraginkorrek topatu arte. **(2.eranskina. Bilaketa-taula)**

Ikerketak aztertzean, *Outcomes* atalari zegokionez, gaia zabalegia zela ikusi zen. Gehienbat sintoma fisiko eta psikologikoen inguruko informazioa topatu zen. Bizi-kalitatearen inguruko informazioa ere egon bazegoen, baina ikerketen arabera aldagarriagoa zen ariketa fisikoaren eraginkortasuna, eta hura neurtzeko eskala ezberdinak erabiltzen zirenez ikerketa bakoitzean, artikuluen konparaketa zailagoa zirudien. Horregatik, bizi-kalitatea *Outcomes* ataletik baztertzea erabaki zen hasierako bilaketan ostean.

Halere, bizi-kalitateari zegokion deskriptorea kentzean, sintoma motore eta psikologikoei buruzko ikerketa baliagarri ugari galtzen zirela ikusita, “*Quality of life*” amaierako bilaketa ekuazioetan gehitu zen ikerketa horiek berreskuratzeko. Izan ere, ikerketa askok sintoma motore edota psikologikoak bizi-kalitatearekin batera aztertzen zituzten. Errebisio kritiko honetarako, artikuluen horietatik, nahiz eta emaitzak zabalagoak izan, sintoma motore eta psikologikoei buruzko datuak berreskuratu ziren (helburuari erantzuteko beharrezko emaitzak).

"Sintoma motoreak" terminoaren deskriptorea topatzeko hasieran *Physical Fitness* erabili zen. Gaiaren inguruan gehiago irakurri heinean, ordea, eta ikusita 2020ko Saunders et al.-en⁽¹⁶⁾ errebisioak sintoma fisikoak *Physical Fitness*, *Balance* eta *Mobility* azpitaldetan banatzen zituela, azken bi arloei zegozkien deskriptoreen bilaketari ekin zitzaion. Horrela, *Postural Balance* eta *Physical Mobility* deskriptoreak gehitu ziren ekuazioetan, *Physical Fitness* deskriptorea erabilia momentura arte kanpoan geratutako emaitza posibleak barneratuz.

Azkenik, "sintoma psikologikoei" dagokionez, *Mental Health* deskriptoreaz gain, *Psychological Adaptation* topatu zen. Halere, definizioa ikusi eta bilaketak egitean, baztertu egin zen, ez zetorrelako helburuarekin bat, 1.eranskinean ikusten den bezala.

4.3. ARTIKULUEN AUKERAKETA

Artikuluaren aukeraketa burutzeko orduan, barneratze eta kanporatze irizpideak erabili ziren:

Barneratze irizpideak:

Argitalpen-urtea: 2010 eta 2021 (urtarrila) urteen artean argitaratutako ikerketak barneratu ziren, eguneratuen zegoen informazioa eskuratzeko. Halere, Cochrane eta Stroke AHA/ASA-n ezin zen 2021era arteko filtroa ezarri, eta kasu horietan 2020ra arte zehaztu zen.

Hizkuntza: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez argitaratutako ikerketak, egileak ulertzen dituen hizkuntzak baitira.

Kokapen geografikoa: edozein herrialdetan burututako ikerketak, ahalik eta informazio gehien topatzeko.

Argitalpen-mota: ikerketa kuantitatibo, analitiko, esperimentalak (1.mailako iturria) onartu ziren, eraginkortasuna (PIKO helburua) neurtzeko egokienak izateagatik.

Interbentzioa: soilik ariketa fisikoan oinarritutako interbentzioa burutzen zuten ikerketak izan ziren aztergai. Erresistentzia aerobikoa, indarra, oreka zein malgutasuna lantzen zuten ariketa fisiko programak barneratu ziren, berrikuspen-lanaren helburuari erantzun ahal izateko.

Parte-hartzaileen ezaugarriak: iktus hemorragiko zein iskemikoa pairatu duten emakume zein gizonak barneratzen zituzten ikerketak, iktusaren fase akutu (<6 hilabete) zein kronikoan (>6 hilabete). Era horretan, gaixotasun neurologikoei denboran zehar izan dezaketen eraldaketaren sesgoa arintzea zen asmoa. Adinari dagokionez, 18 urtetik gorako helduak barneratzen zituzten artikuluak baliogarritzat hartu ziren. Ez zen adin tarte zehatzago bat ezarri, ez zirelako topatu hori egin ahal izateko bezainbeste ikerketa.

Kanporatze irizpideak: Barneratze irizpideak betetzen ez zituzten ikerketak baztertu ziren.

Argitalpen-urtea: 2010. urtea baino lehenago argitaratutako artikuluak.

Hizkuntza: gaztelania, euskara edo ingelesa ez ziren hizkuntzak.

Argitalpen-mota: liburuak, literatura grisa (kongresuak, tesiak, hitzaldiak), gutunak, protokolo eta editorialak. Ikerketa kualitatibo, errebisio sistematiko eta praktika klinikoko gidak (2.mailako iturriak) ere baztertu ziren.

Interbentzioa: ariketa fisikoa beste interbentzio batekin konbinatzen zuten ikerketak zein fisioterapeutek edota beste osasun profesionalek burututako terapia fisiko espezifikoak.

Errealitate birtualarekin erlazionatutako ariketa terapiak ere baztertu ziren, erizain jeneralisten kompetentziatik ihes egiteagatik.

Parte-hartzaileen ezaugarriak: disfuntzio neurologikoak orokorrean barneratutako ikerketak.

Irizpideak zehaztuta, lehenik eta behin, datu-baseetako hitz-gakoekin ekuazioak sortu ziren, bilaketak egiteko. Behin bilaketak eginda, lortutako artikuluen izenburu eta *abstract*-ak irakurri ziren, gaiarekin zerikusirik ez zutenak baztertu. Izenburu eta *abstract* irakurrita erabilgarriak izan zitezkeen artikulua baina aurretik zehaztutako barneratze irizpideak betetzen ez zituztenak, protokoloak eta laburpenik ez zeukaten ikerketak ere baztertuak izan ziren (diseinuaren araberako filtroa ikerketak *full text*-ean lortzean ezarri zen).

Jarraian, geratzen ziren 122 artikuluen artean errepikatutakoak kenduta, ikerketen *full text*-a eskuratzeari ekin zitzaion, prozesu horretan zenbait ikerketa baztertu hauek eskuratzeko zailtasunen ondorioz. Izenburua eta *abstract* irakurrita eta errepikatutakoak kenduta baliagarriak izan zitezkeen 96 artikuluetatik, 6 ezin izan ziren *full text*-ean topatu.

Artikuluak *full text*-ean eskuratu zirenean, diseinuari zegokion filtroa ezarri zen. Horretarako, lanaren diseinu motari dagokionez, aipatua izan den bezala, ikerketa analitiko esperimentalak barneratu ziren. Horrela, errebisio sistematikoak, gida klinikoak, diseinu kualitatiboak eta kuantitatibo deskriptiboak albo batera utzi ziren. Gainerako barneratze eta kanporatze irizpideen filtroa pasatu zen berriz ere, ikerketa gehiago baztertu. Horrela, *full text*-ean eskuratutako 90 ikerketetatik 69 izan ziren baztertuak, 21 geratu zirelarik irakurketa kritikorako. **(3.eranskina.**

Fluxu-diagrama)

21 artikuluko horiei “Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia” pasatu zitzaion, 6 ikerketa baztertu kalitate metodologikoa eskasa izateagatik. Horrela, 15 ikerketa erabili ziren berrikuspen-lan honen helburuari erantzuteko. **(4.eranskina. Irakurketa kritikoa)**

4.4. DATA ATERATZEA

Behin irakurketa kritikoa eginda, errebisio kritiko honen emaitzak eraikitze erabili ziren 15 artikulua aztertu ziren. Ikerketa horien egilea, argitalpen-urtea eta herrialdea, diseinu mota, helburua, laginaren ezaugarriak, interbentzioa, neurketa tresnak eta aurkikuntza interesgarriak laburpen-taula batean bildu ziren. Bertan, lehenik eta behin fase akutuari zegozkion ikerketak adierazi ziren argitalpen berrienetik hasita; eta horren ostean gauza bera egin zen fase kronikoko ikerketekin. **(5.eranskina. Laburpen-taula)**

4.5. DATA ANALISIA

Datuen analisia aurretik egindako laburpen-taulan oinarrituz burutu zen. Taula horren informazioarekin sintesi narratibo bat egin zen, berrikuspen honetako ikerketetan aztertutako aldagaien patrioiak, antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz. Behin hori eginda, lortutako data zuhaitz-kategorial bat osatuz sailkatu zen, ariketa fisikoak iktusa pairatu duten pertsonen sintoma motore eta psikologikoen arintzean zuen eragina aztertze erabili zena. **(6.eranskina. Zuhaitz-kategoria)**

5.-EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Hurrengo azpiataletan (5.1 eta 5.2) berrikuspenaren helburuari erantzuteko erabilitako ikerketen ezaugarri kualitatiboen deskribapen laburra egiten da, ondoren emaitzen aurkezpenari ekinez.

5.1. IKERKETEN EZAUGARRI OROKORRAK

GrAL honen helburuari erantzuteko erabilitako artikuluen emaitzak kategoria ezberdinetan antolatu ziren (*ikusi 6. eranskina*). Alde batetik, ariketa fisikoaren eragina arlo motore eta psikologikoan bereizi zen. Arlo motorearen barruan "sasoia", "mugikortasuna" eta "oreka" aztertu ziren; eta arlo psikologikoaren barruan, "antsietatea" eta "depresioa" (*ikusi 3.taula*).

Egileak	Sasoia	Mugikortasuna	Oreka	Depresioa	Antsietatea
Van de Port IG et al. 2012		X	X	X	X
Gezer H et al. 2019	X	X		X	
Moore SA et al. 2016	X	X	X		
Moore SA et al. 2015	X	X	X		
Globas C et al. 2012	X	X	X		
Kim J et al. 2017	X	X			
Aidar FJ et al. 2014	X			X	
Aidar FJ et al. 2012	X				X
Aidar FJ et al. 2016	X				
Knox M. et al 2018		X	X		
Büyükcavci R et al. 2015		X	X		
Saeyns W et al. 2012		X	X		
Outermans JC et al. 2010		X	X		
Kim M et al. 2014		X			
Gordon CD et al. 2013		X			


3.taula. Berrikuspen lanean barneratutako artikuluen zerrenda eta aztertutako emaitza-aldagaiak.

Bestalde, beste kategoria bat sortu zen aurretik aipatutako azpikategoria bakoitzaren barruan. Horretarako, berrikuspen honetako azterlanen laginen heterogeneotasuna kontuan hartuta, iktusaren fase akutu eta kronikoaren arteko bereizketa ezarri zen. Literatura aztertzen, fase akutu eta kronikoa denbora epe ezberdinetan kokatzen zituzten artikulua topatu ziren. Van de Port IG et al.-ek⁽²⁷⁾, IZB aurkeztu zenetik 6 hilabetetako epea hartu zuten gertaera kronikotzat hartzeko. Federación Española del Ictus-ek⁽³⁾ azaltzen du, iktus osteko berreskurapen funtzionala nabariagoa dela lehenengo 6 hilabetetan, 3.hilabetera arte 1.hilabetean egondako berreskurapen abiadura azkarra mantendu ohi dela, eta 3 eta 6.hilabeteen artean aldaketak ez direla hain nabariak. Hau da, oro har 6.hilabetera arte ematen dira aldaketarik esanguratsuenak, epe horretatik aurrera sintomatologia egonkortu ohi delarik. Hori aintzat hartuta, iktusa duela 6 hilabete baino gutxiago jasan zuten lagina zeukaten 6 artikulua^(27, 28,36-39) fase akutua aztertzeko erabili ziren; eta duela 6 hilabete baino gehiago pairatu zutenak, fase kronikorako^(29-35,40,41). Horien artean, hiruk⁽³³⁻³⁵⁾ barneratze irizpide bezala urtebete baino gehiago igaro izana aipatzen zuten, baina talde bakoitzeko batezbestekoa zehaztu gabe. Fasearen araberrako bereizketarekin, asmoa denboraren igarotzeak sintoma neurologikoengan izan

zezakeen sesgoa arintzea zen.

Artikuluaren diseinuari dagokionez, guztiak analitiko, esperimentalak izan ziren; horien artean 14 ausazko entsegu kliniko zeuden^(27, 29-41); eta quasi-esperimental bat⁽²⁸⁾. Lau ikerketetan ez zen ikertzailea itsutzeko neurririk hartu^(28,32,33,39).

Eztabaidan eragina izan zezakeen beste ezaugarrietako bat ikerketa egindako herrialdea zen. Errebisio honen ikerketak bat Alemanian⁽³¹⁾, bat Belgikan⁽³⁸⁾, beste bat Jamaikan⁽⁴¹⁾ eta Sudafrikan⁽³⁶⁾, bi Britainia Handian^(29,30), beste bi Holandan^(27,39), Korean^(32,40) eta Turkian^(28,37) eta hiru Brasilen⁽³³⁻³⁵⁾ eraman ziren aurrera (**ikusi 1. diagrama**).



1. diagrama. Errebisio kritikoan barneratutako artikuluaren jatorrizko herrialdea.

Ikerketen laginari dagokionez, hiruk baino ez zuten 100 pertsona baino gehiagoko lagina erabili^(27,36,41), beste bostek 40 eta 100 bitartekoa zerabiltzaten^(28-30,37,39); eta zazpik, 40 baino txikiagoa^(31-35,38,40).

Pazienteen ezaugarrien artean adina aztertuz, sei ikerketek batezbestekoa 60 baino gehiagokoa zeukaten^(29-31,37,38,41), eta gainontzeko bederatziek hura baino txikiagoa^(27,28,32-36,39,40).

Halaber, garrantzitsua da pazienteen mugikortasun gaitasuna eta jada azaldutako iktusa izan eta igarotako denbora kontuan hartzea. Pazienteen mugikortasunari dagokionez, lau artikulutan lagina pertsona hemiplegikoek osatu zuten^(32,36,37,39), beste hiru ikerketek hemiplegia zein hemiparesia zeukaten pazienteak onartu zituzten⁽³³⁻³⁵⁾, eta hiruretan paziente hemiparetikoak^(31,38,40). Gainontzeko bost artikulutan, beste irizpideen bidez zehaztu zuten: bietan 6 Minute Walk Test burutzeko gai izatea zen irizpidea^(29,30), beste batean euskarri fisikorik gabe 10 metro ibiltzeko gaitasuna izatea⁽²⁷⁾ eta beste batean ibiltzeko gai izatea laguntzarekin edo laguntzarik gabe⁽⁴¹⁾. Ikerketa bakarra zegoen kanporatze irizpide gisa aurretiko hemiplegia bilaterala edo hemiplegia izatea eskatzen zuena⁽²⁸⁾. Arlo psikologikoan, hura aztertzen zuten artikuluek ez zuten ezer aipatzen egoera psikologiko basalaren inguruan^(27,28,33,34) (**ikusi 4.taula**).

Ariketa fisiko motari dagokionez, ikerketa gehienek erresistentzia aerobikoa landu bazuten ere^(27,28,31,39-41), bazeuden indarra lantzeko ariketa programak erabili zituztenak⁽³³⁻³⁵⁾. Bi ikerketek enbor oreka lantzeko ariketak zerabiltzaten^(37,38) eta gainontzekoek ariketa mistoa^(29,30,32,36) (**ikusi 4.taula**).

Egileak	Iktusa pairatu duten pertsonak					Interbentzioa			
	Igarotako denbora		Mugikortasuna			Erresist. aerobikoa	Indarra	Oreka	Malgutetasuna
	Akutua	Kronikoa	Plegia	Paresia	Beste bat				
<i>Van de Port IG et al. 2012</i>	X				X	X			
<i>Gezer H et al. 2019</i>	X				X	X			
<i>Moore SA et al. 2016</i>		X			X	X	X	X	X
<i>Moore SA et al. 2015</i>		X			X	X	X	X	
<i>Globas C et al. 2012</i>		X		X		X			
<i>Kim J et al. 2017</i>		X	X			X	X		
<i>Aidar FJ et al. 2014</i>		X	X	X			X		
<i>Aidar FJ et al. 2012</i>		X	X	X			X		
<i>Aidar FJ et al. 2016</i>		X	X	X			X		
<i>Knox M et al. 2018</i>	X		X			X	X	X	
<i>Büyükcavci R et al. 2015</i>	X		X					X	
<i>Saeyns W et al. 2012</i>	X			X				X	
<i>Outermans JC et al. 2010</i>	X		X			X			
<i>Kim M et al. 2014</i>		X		X		X			
<i>Gordon CD et al. 2013</i>		X			X	X			

4. Taula. Barneratutako azterlanen ezaugarrien laburpena, bibliografiaren ordena jarraituz.

5.2. EMAITZA ESANGURATSUAK

Jarraian, berrikuspen honetan sartutako azterlanen emaitza esanguratsuak deskribatu eta alderatuko dira, identifikatutako kategoriak kontuan hartuta.

5.2.1. Sintoma motoreak

Iktusa pairatu duten pertsonengan ohikoak diren sintoma motoreen artean bibliografian jasotakoak aztertuz, hiru multzotan (sasoia, mugikortasuna eta oreka) bereiztea erabaki zen.

5.2.1.1. Sasoia

Sasoia eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak aurrera eramateko gaitasuna bezala defini daiteke, akidurarik gabe eta uneaz gozatzeko eta espero ez diren larrialdiak aurrera eramateko aukera ematen duena nahikoa energia mailarekin⁽¹⁶⁾. Saunders et al.-en⁽¹⁶⁾ errebisioak, sasoia sasoi kardiorespiratorio eta muskuloeskeletikoan bereizten ditu, horiek oxigeno kontsumo maximo (VO₂ max.) eta indarraren bidez neurtuz hurrenez hurren. Errebisio kritiko honetan ere, horiek izan dira aztertutako aldagaiak.

Fase akutua

Gezer H et al.-en⁽²⁸⁾ ikerketak, erresistentzia aerobiko ariketa eta errehabilitazio konbentzionalaren konbinaketaz osatutako 6 astetako programa, ariketa konbentzional programa batekin konparatzea zuen helburu. 42 pertsonengan egindako interbentzio aurreko eta osteko VO₂ maximoaren neurketetan ez zen ezberdintasun esanguratsurik eman kontrol taldean (p=0,241); bai, ordea, esperimentalean (p<0,001).

Datu hauek kontu handiz interpretatu behar dira. Izan ere, alde batetik, hau izan zen sasoia fase akutuan ikertzen zuen artikulu bakarra, ezin izan zelarik informazioa beste iturriekin

alderatu. Bestalde, zenbait isuri identifikatu ziren artikulua irakurketa kritikoan, ez baitzen lagin kopuru minimoaren kalkulurik adierazten. Are gehiago, lagin kopurua txikia zen, ospitaleratutako eta Ariketa Tolerantzia Testa egiteko gai ziren paziente kopuru eskasagatik. Halaber, kanporatze irizpideetako bat aurretiko hemiplegia edo hemiparesia pairatzea zen; hortaz, aintzat hartu beharko da emaitzak ezin ditugula zabaldu iktusaren fase akutuan dauden pertsona guztiei.

Fase kronikoa

VO2 maximoa aztertzen zuten hiru ikerketa aukeratu ziren, eta indarraren inguruan aritzen ziren beste bost.

Alde batetik, VO2 maximoari zegokionez, 2016ko Moore SA et al.-en⁽²⁹⁾ ikerketak, ariketa fisiko mistoaz (erresistentzia aerobiko, indar, oreka eta malgutasun ariketak) osatutako 19 astetako programa baten eraginkortasuna aztertu zuen 40 pertsonengan. Kontrol taldeak, iraupen bereko etxean luzatzeko programa burutu zuen. Emaitzetan, talde esperimentalean interbentzioa eraginkorra izan zela ikusi zen ($p < 0,01$), kontrolean ez bezala ($p = 0,62$). Taldeen artean alde nabarmena eman zen ($p < 0,01$).

Lerro horretan, 2015eko Moore SA et al.-en⁽³⁰⁾ ikerketak komunitatean egindako ariketa fisiko egituratuaren eragina aztertu zuen, 19 astetako ariketa misto (erresistentzia aerobikoa, indarra eta oreka) programa baten bidez. Horretarako, bi taldetan banatutako eta NIHSS (National Institute of Health Stroke Scale) moderatua zuten 40 pertsonen VO2 maximoa aztertu zuten. Emaitzetan ikusi zen VO2 maximoa era esanguratsuan aldatu zela talde esperimentalean ($p < 0,01$). Kontrolean, non etxean luzatzeko programa burutu zen, ez zen hobekuntza nabarmenik antzeman ($p = 0,62$). Taldeen konparaketan, alde adierazgarria ikusi zen ($p < 0,01$).

Globas C et al.-ek⁽³¹⁾, 3 hilabetetako ibiltzeko zinta baten bidezko ariketa programa, fisioterapia programa konbentzional batekin alderatzen zuten 36 pertsonaz osatutako laginean. 3 hilabetetara taldeak konparatzean, ikusi zuten interbentzioa eraginkorra zela VO2 maximoari zegokionez ($p < 0,001$). Are gehiago, kontrol taldean narriatu egin zen ($p > 0,05$), talde esperimentalean hobetu zen bitartean ($p < 0,001$). Ikerketa honetan, barneratze eta kanporatze irizpideen espezifikotasunak, laginak iktus kroniko populazioa baino mugikortasun handiagoa izatea ekar dezakeen.

Atal honetan aipatutako hiru ikerketak kalitate metodologiko altukoak dira. Guztietan, nahiz eta lagin kopurua ezberdina izan, aurretik lagin kopuru minimoa kalkulatu zen. Pazienteen ezaugarriei dagokionez, Moore SA et al.-en^(29,30) artikuluetan barneratze irizpidea pertsonak 6MWT ibiltzeko gai izatea zen (bastoiarekin edo bastorik gabe). Globas C et al.-en⁽³¹⁾ ikerketak, ibilera hemiparetikodun pertsonak barneratzen zituen. Esan genezake, beraz, emaitzak populazio zabal horri heda zaizkiokela.

Indarrari dagokionez, bost ikerketek aztertzen zuten ariketa fisikoaren eraginkortasuna indarraren areagotzean. Hasteko, Kim J et al.-ek⁽³²⁾ egindako ikerketak, zeinak, 29 pertsonengan indarra eta ibiltzeko abiadura lantzeko programa baten eraginkortasuna terapia

fisiko konbentzional programa batenarekin alderatzen zuen 6 astetako epean, indarra dinamometro batekin neurtu zuen. Emaitzetan ez zen taldeen arteko ezberdintasun nabarmenik antzeman ($p=0,928$) kaltetu gabeko aldean ($p=0,14$ talde esperimentalean; $p=0,621$ kontrolean). Kaltetutako aldean, kontrolean ez zen hobekuntza adierazgarririk eman ($p=0,265$), baina bai esperimentalean ($p=0,041$). Halere, taldeak konparatzean ez zen alde nabaririk ikusi ($p=0,592$).

Azaldutako Globas C et al.-ek⁽³¹⁾, hanka funtzionalaren indarra aztertu zuten, 5 *chair rise*-ren bitartez. Taldeen konparaketan, ez zen ezberdintasun esanguratsurik topatu ($p=0,11$) ibiltzeko zinta zerabilen eta fisioterapia konbentzional taldearen artean. Gainera, aintzat hartzekoa da laginaren hasierako sasoi-maila altua.

24 pertsonatako lagina zeukan 2014ko Aidar FJ et al.-en⁽³³⁾ ikerketak, indarra neurtzeko 1 *repetition maximum (1RM)* erabiltzen zuena, erakutsi zuen talde esperimentalean (indar entrenamendua 12 astez) hobekuntza esanguratsua zela ($p<0,05$); kontrolean (interbentziorik ez) ez bezala ($p>0,05$). 24 pertsonengan indarrezko entrenamendua zerabilen 2012ko Aidar FJ et al.-en⁽³⁴⁾ 12 astetako beste ikerketan ere, $p<0,05$ atera zen 1RM azpiatal guztietan talde esperimentalarentzat; eta $p>0,05$ kontrolarentzat.

Aidar FJ et al.-ek⁽³⁵⁾ 2016an indarra lantzeko ariketaz osatutako 12 astetako entrenamendu baten eragina aztertu zuten iktusa pairatu zuten 24 pertsonen indarrean. Entrenamendu aurreko eta ostekoa alderatuz, 1RM testean talde esperimentalean hobekuntza adierazgarria ikusi zen ($p<0,05$); kontrolean (interbentzio eza) ez bezala ($p>0,05$).

Indarrari dagokion kategorian aztertutako bost ikerketa hauetan, pazienteak hemiplegikoak^(32,33-35) edo hemiparetikoak^(31,33-35) ziren. Emaitzei dagokionez, bi ikerketetan ez zen taldeen arteko emaitza esanguratsurik topatu^(31,32), eta beste hiruretan, ordea, bai⁽³³⁻³⁵⁾. Egia da konparaketa zaila dela, ariketa programa eraginkorra zela adierazten zuten ikerketetan 1RM testa erabili zelako⁽³³⁻³⁵⁾; eta besteetan, ordea, dinamometro bat⁽³²⁾ eta 5 *chair rise*⁽³¹⁾. Gainera, 1RM erabilitako hiru ikerketek, indarra lantzeko entrenamenduak zerabiltzaten⁽³³⁻³⁵⁾. Besteek, ordea, ibiltzeko zinta bidezko entrenamendua eta indarra⁽³²⁾ eta erresistentzia aerobikoa⁽³¹⁾ konbinatzen zituzten entrenamenduak erabili zituzten.

Halere, nahiz eta artikuluek hori adierazi, baiezeko emaitzak tentu handiz interpretatu behar dira. Izan ere, pertsona kopuru minimoa bakarrik Globas C et al.-ek⁽³¹⁾ zehaztu zuten. Gainera, ariketa eraginkorra zela adierazten zuten 3 ikerketetan, kontrol taldean ez zegoen inolako interbentziorik, hortaz, zentzuzkoa dirudi zeozer eginez emaitzak hobetzea⁽³³⁻³⁵⁾. Azkenik, Aidar FJ-ren⁽³⁴⁾ 2012ko ikerketak ez zuen taldeen homogeneousotasunaren inguruko aipamenik egiten.

5.5.1.2. Mugikortasuna

Mugikortasuna aztertzerako orduan, bi izan ziren artikuluek barneratutako parametro nagusiak. Alde batetik, ibiltzeko erresistentzia, ikerketa guztietan 6 *Minutes Walking Test (6MWT)* bidez aztertu zena. Bestalde, ibiltzeko abiadura, 10 *Meters Walking Test (10MWT)*-ren bidez neurtua. Azkenik, ibilera eta mugikortasuna neurtzeko *Rivermead Mobility Index (RMI)* erabili zen.

Fase akutua

Gezer H et al.-ek⁽²⁸⁾, *6MWT* aztertuz, ikusi zuten programa amaitzean, ariketa aerobiko zein errehabilitazio konbentzionalaren taldean hobekuntza esanguratsuak ematen zirela ($p < 0,001$ eta $p = 0,044$ hurrenez hurren). Halere, aintzat hartu behar da lan honetako gainerako ikerketetan ez bezala, aurretik hemiplegia edo hemiparesia izatea kanporatze irizpidea zela.

Knox M et al.-en⁽³⁶⁾ ikerketak indarra, oreka, jarrera eta ibiltzeko ariketetaz osatutako ariketa programa alderatu zuen ohiko ariketa programa eta hezkuntza programa batekin. 144 pertsona hemiplegikoz osatutako programaren iraupena 12 astetakoa izan zen. *6MWT* eta *10MWT* testean aldaketa esanguratsuak eman ziren 3 taldetan. Taldeak konparatuz, ikusi zen *6MWT*-ri zegokionez, lehenengo taldea eta kontrol taldearen artean hobekuntza adierazgarria zela lehenengo taldearen alde (12.astean $p = 0,00002/24$.astean $p = 0,001$); bigarren taldea kontrolarekin alderatzean ere hobekuntza esanguratsua zen bigarren taldearen alde 12.astean ($p = 0,03$) baina ez 24.astean ($p = 0,23$); eta ariketa lantzen zen bi taldeak konparatzean alde adierazgarria eman zen lehenengoaren alde ($p = 0,03$ bi neurketetan). *10MWT*-ri zegokionez, $p < 0,05$ izan zen ariketa mistoaren taldea eta kontrola, eta ariketen taldeak alderatzean; eta $p > 0,05$ indar taldea eta kontrola alderatzean.

Büyükcavcı R et al.-ek⁽³⁷⁾ enbor oreka hobetzeraz zuzendutako ariketa zirkuitu baten eraginkortasuna neurtu zuten, errehabilitazio programa konbentzional batekin alderatuz. 3 astetako iraupena zeukan ikerketa honetan 65 pertsona hemiplegikok parte hartu zuten. Bertan, *RMI* aztertu zuten, bi taldetan ezberdintasun esanguratsua ikusiz ($p = 0,001$). Halere, taldeen konparaketan, alde adierazgarria ikusi zen ($p = 0,001$) esperimentalaren alde.

Lerro horretan jarraituz, Saeys W et al.-ek⁽³⁸⁾ enbor ariketak aztertzen zituzten hemiparesiadun 33 pertsonengan. Talde esperimendalean terapia fisiko eta okupazional konbentzional eta multidiziplinarra eta enborra indartzeko, koordinazioa eta enborraren mugikortasuna lantzeko oreka ariketak burutu ziren 8 astez. Kontrolean, berriz, terapia fisiko eta okupazional konbentzionala eta goiko gorputz adarren mugimendu pasiboak eta larruazalean zeharreko nerbio estimulazioa sorbalda mingarri hemiplegikoan landu ziren. Interbentzio osteko neurketan, bi taldetan aldaketa esanguratsua antzeman zen mugikortasunari zegokionez. Halere, taldeak konparatuz, hobekuntzak adierazgarriak ziren talde esperimentalarentzat *Tinetti testean*, *Rivermead Motor Assessment Battery*-n, *Dynamic Gait Index* eta *Functional Ambulation Categories (FAC)* eskalan (guztietan $p < 0,001$).

Van de Port IG et al.-en⁽²⁷⁾ lanak zirkuitu batean entrenatzen zuen talde bat ohiko fisioterapia programa bat jarraitzen zuen talde batekin konparatu zuen. 10 metro euskarri fisikorik gabe ibiltzeko gaitasuna zuten 250 pertsonak osatutako ikerketa honek, 12 astetako iraupena zeukan. *Stroke Impact Scale*-ren mugikortasun domeinuan, aldaketa esanguratsuak eman ziren ($p < 0,001$) taldeen artean, eta baita *RMI* eta *FAC*-en ere ($p < 0,001$). Hobekuntza adierazgarria topatu zen, gainera, *6MWT* ($p < 0,001$) eta *5 meter comfortable walk test*-erako ($p < 0,001$). Aintzat hartzekoa da, taldeak ez zirela homogeneousak hasieratik *Stroke Impact Scale*-ren *Strength* eta *RMI*-ren *Leg* azpiataletarako.

Outermans JC et al.-ek⁽³⁹⁾, ibilera hobetu eta jarreraren kontrola berreskuratzeko 4 astetako erresistentzia aerobiko programa, intentsitate baxuko ariketa programa batekin konparatzen zuten. 43 paziente hemiplegikoz osatutako laginean, hobekuntza esanguratsua ikusi zuten talde esperimentalaren alde *10MWT* ($p=0,03$) eta *6MWT*-n ($p=0,02$).

Ikus daitekenez, kategoria honetako ikerketa guztiek ariketa mota ezberdinak zerabiltzaten (erresistentzia eta ariketa mistoa), horrek emaitzak estrapolatzea ahalbidetuz. Gezer H et al.⁽²⁸⁾, Knox M et al.⁽³⁶⁾, eta Outermans JC et al.-en⁽³⁹⁾ ikerketetan izan ezik, gainontzekoengan lagin kopurua aurretik kalkulatu zen.

Fase kronikoa

Kim J et al.-ek⁽³²⁾ iktus osteko hemiplegia zuten bi talde konparatu zituzten. Ibiltzeko abiadurari zegokionez, terapia fisiko konbentzionalaren taldean ez zuten ezberdintasun esanguratsurik topatu ($p=0,35$); erresistentzia eta indarraren taldean kontrakoa gertatu zelarik ($p=0,003$). Taldeen aldea adierazgarria izan zen baita ere ($p=0,042$).

Aurretik aipatutako 2016ko Moore SA et al.-en⁽²⁹⁾ ikerketak, zeinak barneratze irizpide bezala parte-hartzaileek *6MWT* burutzeko gai bastoiarekin edo bastoirik gabe izatea zuen, taldeen arteko ezberdintasun esanguratsua zegoela azalerazi zuen *6MWT* eta *10MWT*-n. Izan ere, talde esperimentalean (malgutasuna, indarra, erresistentzia eta oreka) *6MWT*-ean $p<0,01$ eta *10MWT*-ean $p<0,01$ izan ziren. Etxeko luzaketen taldean, *6MWT*-n $p<0,05$ izan zen; eta *10MWT*-n $p=0,01$. Halere, talde esperimentalaren aldaketak esanguratsuak izan ziren kontrolarekin alderatuz ($p>0,01$ bietan).

Moore SA et al.-en⁽³⁰⁾ 2015eko ikerketan antzeko ondorioak atera ziren. *6MWT*-ri zegokionez, talde esperimentalean (erresistentzia aerobikoa, indarra eta oreka) $p<0,01$ izan zen; eta kontrolean (luzaketak) $p=0,02$. Taldeak alderatzean, ordea, alde adierazgarria ikusi zen ($p<0,01$). *10MWT*-ri zegokionez, talde esperimentalean $p<0,01$ atera zen eta kontrolean $p=0,04$. Taldeak alderatuz, ezberdintasun esanguratsua ikusi zen ariketen alde ($p<0,01$).

Kim M et al.-ek⁽⁴⁰⁾ 22 paziente hemiparetiko barneratu zituzten 4 astetako programa batean. Aurreko bi ikerketetan gertatutakoaren lerroan, ezberdintasun esanguratsua topatu zen errehabilitazio estandarren taldean zein esperimentalean ($p<0,05$ bietan). Taldeak konparatzean, berriz ere alde nabaria topatu zen komunitatean ibiltzeko programaren alde *6MWT* ($p=0,004$) eta *10MWT* ($p=0,045$) testetan.

Gordon CD et al.-en⁽⁴¹⁾ ikerketak, ibiltzeko 12 astetako programa bat masaje arina ematearekin konparatzen zuen laguntzarekin edo laguntzarik gabe ibiltzeko gai ziren 128 pertsonengan. *6MWT*-ri zegokionez, taldeen eta denboraren arteko elkarreragina neurtzen zuen $p 0,001$ baino txikiagoa zela adierazi zuten. Hau da, talde esperimentalaren hobekuntza adierazgarria izan zen kontrolarenarekin alderatuta 3.hilabetetara arte.

Aurretik aipatutako Globas C et al.-ek⁽³¹⁾ ere erakutsi zuten ibilera abiadura eta erresistentziari zegokionez, hemiparesiadun taldeen artean emandako hobekuntza esanguratsua zela talde esperimentalaren alde (*6MWT* $p<0,001$ eta *10MWT* $p=0,001$). Taldeen barneko aldaketak

aztertzean, *6MWT*-rako $p < 0,001$ izan zen talde esperimentalean (ibiltzeko zinta bidezko programa) eta $p > 0,05$ kontrolean (fisioterapia konbentzionala). *10MWT*-ri zegokionez, talde esperimentalean aldaketa adierazgarria izan zen ($p < 0,01$), ez ordea, kontrolean ($p > 0,05$). *RMI-n*, taldeen arteko ezberdintasuna esanguratsua izan zen talde esperimentalaren alde ($p = 0,02$).

Ariketaren eraginkortasuna agerikoa badirudi ere, kontuan hartu behar da Kim J et al.⁽³²⁾ eta Kim M et al.-ek⁽⁴⁰⁾ ez zutela lagin kopuru minimoa kalkulatu. Gainera, 2015eko Moore SA et al.-ek⁽³⁰⁾ desgaitasun-maila moderatuko pertsonak baino ez zituzten barneratu; eta Gordon CD et al.-ek⁽⁴¹⁾ ibiltzeko gai zirenak.

5.2.1.3. Oreka

Iktus osteko sintoma motoreen barruan, oreka asaldurek garrantzi handia daukate. Oreka, egonkortasuna eta jarrera mantentzeko gaitasuna bezala definitzen dena⁽¹⁶⁾, *Berg Balance Scale (BBS)*, *Romberg test*, *Four Test Balance*, *Timed balance* eta *Functional Reach test*-en bidez aztertu zen.

Fase akutua

Knox M et al.-ek⁽³⁶⁾, programa amaituta egindako *BBS*-ren azterketan, ikusi zuten 3 taldetan ematen zirela aldaketa esanguratsuak (batezbesteko $p < 0,0002$). Halere, ariketa mistoa landu zuen taldea eta kontrola alderatuz, ezberdintasun adierazgarria eman zen (12.astean $p = 0,00/24$.astean $p = 0,001$); ohiko ariketa programa eta kontrol taldearen artean, ordea, ez zen hobekuntza esanguratsurik eman (12.astean $p = 0,34/24$.astean $p = 0,16$). Ariketa mistoa ohiko ariketa programarekin konparatzean, ariketa fisiko mistoaz osatutako taldean hobekuntza nabarmenak ikusi ziren 12.astean ($p = 0,01$); 24.astean ez bezala ($p = 0,06$).

Büyükcavcı R et al.-en⁽³⁷⁾ ikerketan, nahiz eta bi taldetan *BBS*-n aldaketa esanguratsua eman ($p = 0,001$ bietan), interbentzioa amaitu eta 3 hilabetetara, ezberdintasuna adierazgarria zen enbor orekaren taldearen alde ($p = 0,001$).

Saeyns W et al.-ek⁽³⁸⁾ antzeman zuten nahiz eta bi taldetan *BBS*-n emandako aldaketa esanguratsua izan, taldeen arteko alde nabaria zela oreka lantzeko taldearen alde ($p < 0,001$). Oreka neurtzeko *Romberg with eyes opened and eyes closed* eta *Four Test Balance Scale*-en alde adierazgarria egon zen enbor ariketen alde ($p = 0,002$; $p = 0,003$; $p < 0,001$ hurrenez hurren).

Van de Port IG et al.-en⁽²⁷⁾ ikerketan, oreka *Timed balance test*-aren bidez aztertu zen. Bertan, ez zen ezberdintasun esanguratsurik topatu ariketa aerobiko taldearen alde ($p = 0,55$). Artikulu honen emaitzak tentu handiz interpretatzeko modukoak dira, hasierako ezaugarri demografikoen artean ez zirelako homogeenak hankaren indarrari zegokionez.

Azken ikerketa hau⁽²⁷⁾ ezin da kategoria honetako gainontzeko ikerketekin konparatu. Izan ere, beste eskala bat darabil. Gainera, aurrekoetan pazienteek hemiplegia^(36,37,39) edo hemiparesia⁽³⁸⁾ zuten eta kasu honetan, 10 metro euskarri fisikorik gabe ibiltzeko gai izatea zen irizpidea⁽²⁷⁾.

Outermans JC et al.-ek⁽³⁹⁾, ez zuten ezta ere hobekuntza adierazgarririk topatu erresistentzia aerobikoaren eta intentsitate baxuko fisioterapia taldearen artean ez *BBS*-ri ($p=0,45$), ezta *Functional Reach* eskalari zegokionez ere ($p=0,84$).

